
MAITASUNA

Munduak ezagutu dana itzik ederrena da maitasuna ta maitasunaren bidez egin dira lurrean gizadiak ezagutu dituan egitekorik arrigarrienak. Jaungoikoak bere semea emon eutson munduari, gizadiak aren bidez bizia lortu egian. Gizadia egoan bere betiko zorionaren galzorian ta negargarriena zan aita batentzat seme—alaben egoera ain larria.

Era askotako okerkeriak egozan lurrean. Nauskeria, gogor, zabaldu zan gizartean, norbera balitz lez biziaren sortzaillea ta jabe zigurra. Arrokeria itsua danez bereak egiten ebillan ondasunekaz jaubetuz, gosea zabalduz ta bizien artean miseria sortuz. Mundutarren zoritxarrak ta bizien negarrak dei egin eban aitaren aurrean, ta biotza errukituz gizadiaren aldeko erabagia artu eban.

Seme bat eukan amai barik ona ta Jaungoiko izatea estaldu ta gizon izatea arturik, estalpe batean agertu zan. Emen benetan, Aitaren aldetik ta Semearen aldetik biotz aundi bi agiri dira. Biak ekien aurrezaz, zer jazo bear eban, burle, irain, samintasun garratzenak sortuko zirela bizitzan ta guztia eskeintzen dabe gizadiaren onerako.

Emen agertzen da Aitaren eta Semearen munduaren aldeko Maitasuna. Aitarik onenak ezin ikusi dau bere erriaren ondarena ta gizon irudia, era berean, emonik, gizadi errukarriarengana bialtzen dau Semea. Jokabide bi ikusten ditugu emen. Aitaren guraganako errukia ezilkorra da ta jakiñik Semea gizonak ilko dabela, mundura bialtzen dau eriotza orren bidez gizadi maitagarria gaizkatzera. Semea maite dau ezin esan beste, baiña bere semerik onena gizonak iltea ez dau ukatzen gizadiaren salbamen aundirako. Munduaren alde emon bear eban bizia, aita ez eutson semeari parkatzen. Au da maitasun eredugarria!!.

Egiz, gizonezko jantzita datorren seme Josuk mundua anitu bear dau bere irakatsi ta maitasunagaz. Lurrak ezagutu ditun argitasun ongarrrienak zabalduko ditu lenengo ta gero, on egite guzti origaitik, Jaungoikoaren seme egiten dau bere burua ta il—garri da esan eben judeatarrak.

Aitagaz batera biziaren jaubea zan, "kurutzera ori Kurutzera ori" deadarrez ots egin eben. Ta Jesus ixildu zan. Danen jaubea izanik, Aitaren esana egiten irakatsi eban ta biotzean eukan maitasun guztia gizadiari

eskeini eutson. Dana joan zan iskanbilla ikaragarrian. Erriaren aldetik gorrotoa ta Jesusen aldetik maitasuna.

"Aita, parkatu egiezu, ez dakie zer egiten daben". Odol guztia ixuri eban munduaren ta iltzailleen alde.

Zan guztia eskeini eutson Aitari ta borondate oneko guztiak gaur arte ezagutzen dabe Jesusen maitasun arrigarria.



BIZIAREN JAUBEA

Goratu daigun Jesus
biziaren jaubea
Golgota mendian;
irainka jabilkoz
gorrotoz mozkortuta
itxura lardan.

Luna dardaratu zan
eguna gau biurtu
eriotz larriaz;
lurrak autortu eban
Jesus Jainkoa zala
argia galduaz.

PAULIN